

Marmari Leitzako

12. zenbakia / 2005eko abendua

aldizkaria

Adiorik ez Leitze

Mikel Olano, Aio, Leitze! Leitzako hitz eta esamoldeen hiztegiaren egilearekin elkarrizketa

Bai Euskarari
ekimenaren
abiatze eta
faseak
Leitzaldean.

CEDERNA-
GARALUR
elkartearen
aurkezpena.

Institutuko
hainbat lan.

Leitzako fauna
iruditan.

Ipuiak...



zenbaki honetan:



● 3. or. Aurkezpena.

● 4-6. or. Bai Euskarari ekimena.

● 8-11. or. Mikel Olanorekin Aio, Leitze! liburuaren inguruan solasean

● 12-13. or. CEDERNA-GARALUR elkarte.

● 14-15. or. Institutuak: Ipuin erotikoa.

● 16-17. or. Institutuak: Minbizia Leitzan.

18-19. or. Institutuak: Ipuin bat bost minututan .

20-22. or. Leitzako fauna iruditana.

23-25. or. Ipuia: Kostaldeko agurea.

26. or. Ezetx asmatu eta pertsonaia izkutua

27. or. Denborapasak eta eroskopoa

28. or. Eta zuk, zer diozu?

Aio Olentzero, aio Leitze

negua ailegatu da. Orain sutondoan pasatzen ditugu orduak, irakurtzeko parada ezin hobea. Azken egun hauetan gabonetako giroan murgildurik ibili gara, bapo jan eta edan. Batzuek elurretan ibiltzea nahiago. Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko haurrak, berriz, eguberrietako tailerretan jolasean.

Marmariren zenbaki honetan, bi erreportaje nabarmendu izan nahi ditugu. Alde batetik Mikel Olanok idatzitako Aio Leitze hiztegia, eta bestetik, Bai Euskarari. Bestalde, zenbaki honetan estreinakoz Amazabal institutuko ikasle batzuek egindako lanak argitaratu ditugu.

Aio Leitze izeneko hiztegia argitaratu berri da. Leitzako euskararen hiztegia da. Mikel Olano Leitzarrak idatzi du. Hiztegi honen zertarakoa, etorkizuneko gizaldiak osatuko dituzten hiztun horiengan bilatu behar da nagusiki, horietxek moldatu eta itxuratuko baitute han eta hemen erabiliko den hizkera, euskara. Hiztegi honetako materialak hiru ikasgairen inguruan bildu dira: etnografiaren, dialektologiaren eta corpus linguistikokoaren inguruan, hain zuzen. Alderdi etnografikoan egileak Leitzako bizimodu tradizionalaren zertzelada ugari bildu ditu; dialektologiari dagokionez, batetik, Leitza-ko bereizga-

rriak jaso ditu eta, bestetik, inguruko hizkerekiduen kidetasunak; bukatzeko, Leitzako ahozko eta idatzizko literatura-zen azterketa xehea egin ondoren, corpus linguistikoko zabal bat osatu du, hitz gehienak beren testuinguru naturalean agertaraziz. Mikel Olanok elkarriketan hiztegiari buruzko azalpenak guztiak eman dizkigu. Lan ikaragarria egin dut leitzatar honek.

Leitza, Goizueta, Areso eta Arano 2004. urtean sartu ziren Bai Euskarari Ziurtagiria ekimenean. Bertako euskalgintzak eta euskara zerbitzuak bultzatuta, Kontseiluari proposamena egin zitzaion eta prozesua abiatu zen. . Bai Euskarari

a k o r d i o a k
e m a i t z a
o n a k i z a n


dituela uste dugu, zuek era bai? Lan handia egin dute Leitzarrek euskaren normalizazioan. Leitzako herriak euskarekiko duen maitasuna nabarmena da. Bai Euskarari erreportajearen prozesuaren gorabehera guztiak agertzen dira. Jarrai dezagun euskararen alde lan egiten.

Aldizkari honetako beste gai bat: Cederna-Garalur. Nafarroako mendialdeko garapen agentzia da. Zerbitzu desberdinak eskaintzen ditu, denak landa garapeneraren inguruan. Cederna-Garalurreko langile berria dugu gure artean : Elena Irigoien Arbizu, Sakandarra edo sakanikola askok deitzen diguten bezala, izen bitxia.

Marmariren zenbaki honetan Amazabal institutuko ikasleen ekarpena eta parte hartzea oso handia izan da. Marmari aldizkaria Leitzarrentzat egiten da eta Leitzari buruzko gaiei buruz hitz egiten da, beraz, Leitzatarren laguntza ezibestekoa da aldizkaria argitaratzeko. Guztiok aldizkarian parte hartzera animatu nahi zaituztet.



Bai Euskarari Leitzaldean Ekimenaren abiatzea eta faseak



Leitza, Goizueta, Areso eta Arano 2004. urtean sartu ziren Bai Euskarari Ziurtagiria ekimenean. Bertako euskalgintzak eta euskara zerbitzuak bul-tzatuta, Kontseiluari proposamena egin zitzaion eta prozesua abiatu zen.

Bi fase nagusi izan zituen ekimenak: lehendabiziko fasean, herritarren eta eragileen artean Bai Euskarari Akordioaren berri eman zen, eta ekimenaren inguruko giroa sortzen ahalegindu ziren.

Bigarren fasean, Kontseiluaren izenean lanean aritu ziren teknikariek (bat Leitza-Areson eta bestea Goizueta-Aranon), eragileak bisitatu zituzten, eta konpromisoak hartzeko eta ziurtagiria eskuratzeko proposamena egin zieten. Eskualdean eragile ugari dagoenez, nolabaiteko hautaketa bat egin zen, eta horiengana jo zen. Prozesuan parte hartzeko gonbita, nolahi ere, lau herriotako eragile guztiei egin zitzaion. 150 gizarte eragilerengan jo zen. 2 hilabetez.

euskarari

Bi fase horien bukaeran, azkenik, ziurtagirien banaketa ekitaldia egin zen, 2004ko uztailaren hasieran. Esan bezala, 78 eragilek lortu zuten ziurtagiria; beraz, 78 eragile horiek euskararen normalizaziorako konpromisoak hartu zituzten. Gehienek Bidean ziurtagiria lortu zuten.



Bai euskarari Ziurtagiridunak: goian Leitza eta Aresokoak, eta behean Goizueta eta Aranokoak

Urtebete pasata: ebaluazioa eta ziurtagiri berriak

Urtebete pasata, 2005eko ekainean ziurtagirien ebaluazioa egin du Kontseiluak. Zehazki, aurtan 76 ziurtagiri banatu dira, iaz baino bi gutxiago. Gainerako herrietan gertatu den bezalaxe, baja batzuk gertatu dira (hamaika, hain zuen ere), eta bederatzi ziurtagiri berri banatu dira.

Gertatutako bajei dagokionez, gehienak arrazoi ekonomikoengatik etorri dira. Zenbait eragilek zailtasun ekonomikoak dituztela aipatu dute, eta, azken batean, ziurtagiria ordaindu beharreko agiri bat da. Beste zenbaiten kasuan, eragilea bera desagertzea edo eskualdetik alde egitea izan da arrazoia; eta, oso kasu gutxitan, konpromisoak betetzen jarraitzeko prestutasunik edo gaitasunik eza.

Ziurtagiri berriak, esan bezala, bederatzi izan dira. Denbora gehixeago edukiz gero ziur asko gehiago ere lortuko ziren.

Ziurtagirien kopuruari dagokionez, beraz, balantzea ona da. Oso kopuru



altua da, proportzioan Euskal Herriko altuenetakoa.

Konpromisoen betetze-mailari dagokionez ere, balorazio ona egin litekeela uste dugu. Urrats asko eman da eskualdean euskararen normalizazioaren bidean, eta horixe da bilatzen genuena.

Aipatzeko ere da Ziurtagiriaren ikurra ez dela behar adina erakutsi. Hemendik ziurtagiridueni ziurtagiria erabiltzera animatzen ditugu, pegatina jendaurrean jarri, edota ikurra bestela erabili.

2005-2006 ikasturterako jarrai-penerako eta eragiteko egitaraua martxan jarri da. Azaroaren erdialdean ziurtagiridunei BDP programa aurkeztu zitzairen erakundeei. Erakundeak kudeatzeko programa informatikoa da. Catalunyan egin zuten eta orain Softekin enpresak euskaratu du.

Programa horiek Softekin enpresak egin ditu, eta honako sektore hauetarako balio du:

-Ostalaritza (ostatuak, jatetxeak, aterpetxeak, hotelak...)

-Dendak (janari-dendak, liburu-dendak, opari-dendak, arropa-dendak, harategiak, kirol-dendak, lore-mintegiak, altzari-dendak...)

-Okindegiak eta gozotegiak

-Ile-apaindegiak eta estetika-zentroak

Software hau ukipen-pantailaren bidez erabili daiteke, edo saguarekin eta teklatuarekin. Erabiltzeko oso erraza da, eta aukera ematen du programa bakar batekin enpresaren gestio osoa (fakturak, albaranak, tiketak, biltegiaren kontrola...) eramateko.

Bestalde, elkarte gastronomikoei espreski zuzendutako programa berria sortu du Softekin enpresak: elkartrak.

Programa hori Softekin enpresak egin du, espreski elkarte gastronomikotarako, eta aukera ematen du elkartearen gestio osoa (bazkideen kontuak, tiketak, biltegiaren kontrola...) eramateko, ukipen-pantailaren bidez, saguarekin nahiz teklatuarekin.

Abenduan Bai Euskarari Ziurtagiria duten eragileei beraien berri ematen duen eskuorria emango diegu, hauek beraien bazkide edo bezeroen artean banatzeko.



Xabier Mendiguren eta Mikel Balentziaga Kontseiluko kideek, Ohiana Lujambio izan zuten lagun Eskutik eskura kanpainaren aurkezpenean.



BDP programa informatikoaren aurkezpena. Softekin enpresako arduraduna.

2005 LEITZ-ARESO

IDEAN

[illegible]

GUK ZERBITZUA EUSKARAZ

[illegible]

**GUK ZERDITZUA ETA LANA
EUSKARAT**

Kullar Tahirin	UTTM
Azərbaycan Gənclər Elitəsi	LEITON
Məhəbbət Ləzizova	LEITON
Məhəbbət Məhəbbət Tahirin	UTTM
"Dünya" Azərbaycan Gənclər Elitəsi	LEITON
Səhər Məhəbbət Elitəsi	LEITON
Kullar Tahirin Azad	AMT
Azərbaycan Elitəsi	UTTM



kontuan hartu euskararekin
konprometitzen dena

www.belauskarank.com

Bai Euskarari Ziurtagiriak hiru maila ditu:

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA BIDEAN

Normalizazioan lehen urratsak egiten ari eta konpromiso eraginkorrak hartu dituztenentzat

■ BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA
GUK ZERBITZUA EUSKARAZ

Konpromisoak hartu eta dagoeneko euskarazko zerbitzua ematen dutenentzat.

■ BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA
GUK ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ

Dagoeneko euskarazko zerbitzua ematen eta euskaraz lan egiten dutenentzat.

Leitzan

Bidean	29
Guk zerbitzua euskaraz	15
Guk zerbitzua eta lana euskaraz	5

Areson

Bidean	4
Guk zerbitzua euskaraz	2
Guk zerbitzua eta lana euskaraz	1

2005 GOVERNMENT-18-130

CHICAGO

[illegible]

CAN ZEPHYRUS PUBLISH?

[illegible]

CUE: BOLDITUA, CTA: LARGA

EUKARYAL	
<i>Chlamydomonas reinhardtii</i>	1700 bp
<i>Arabidopsis thaliana</i>	1000 bp



kontuan hartu euskararekin
komunikatzen dena

Goizueta eta Aranon

Bidean	11
Guk zerbitzua euskaraz	9
Guk zerbitzua eta lana euskaraz	2

Mikel Olano.

Aio, Leitze! Leitzako hitz eta esamoldeen hiztegiaren egilea.

Aio, Leitze!

■ Zer da, bi hitzetan esanda, *Aio, Leitze!* liburua?

Hitz bilduma bat da, hiztegi bat; hiztegi guztietan bezala, hitz bakoitzaren azalpena heldu da eta hitz askok adibide saila daramate ondoan (milaka jaso ditut). Hiztegi deskriptiboa da; hau da, Leitzan orain arte nola hitz egin den esaten du, ez aurrerantzean nola hitz egin edo idatzi beharko litzatekeen. Ez dut araurik eman, baina bai, aldian behin, gomendioen bat edo beste. Izugarri ikasten da hiztun onari belarri paratu hutsarekin. Batik bat hizkuntzaren bizitasuna adierazten duten hitzak interesatu zaizkit; egunotan asko aipatzen dira ‘lagunarteko hizkera’, ‘kale-

ko euskara’, edo ‘hizkera informala’ bezalako kontuak, eta euskara molde horiek xehero-xehero jasotzen saiatu naiz. Baina badira, baita ere, etnografia edo dialektologia ukitzen dituzten ehundaka sarrera. Etnografiari dagokionez, honako hau aztertzen saiatu naiz: hitzek zer erlazio duten Leitzako kulturarekin, hau da, historian barrena herrian bizi izan diren usadio, lantegi, bizimodu eta pentsamoldeekin. Alde horretatik, argazkien eta bestelako informazioen laguntzak entziklopedia itxura ematen diote liburuari. Alderdi dialektologikoari dagokionez, berriz, Leitzako hitz berezienak jaso ditut eta inguruko herrietako hizkerekin dau-

den kidetasunak eta desberdintasunak. Konparaziora, Goizuetarekin diren ehun bereizketa baino gehiago kontatu ditut (batzuk bereizketa lexikoak, beste batzuk morfologikoak edo fonetikoak). Nire kasketa hutsez abiatu nintzen orain dela urte batzuk, eta han-hemen ikasitakoa orain jendearen eskueran paratu nahi izan dut. Bi hitzetan azaltzeko esan didazu, baina hiztegian badira bi mila baino gehiago.

■ Eta izenburuak zer esan nahi du?

Nork bere interpretazioa egin dezake, baina honako hau nabarmena da: goian aipatu ditudan usadioak, lantegiak, bizimoduak eta bestelakoak arras aldatzen edo galtzen ari dira, eta beste herri bat sortzen ari da, dagoeneko sortu ez bada. Ez al du merezi orain artekoaren lekukotasun edo mugarri bat izaterik? Jakina, orain artekoa esaten dudanean, azken gizaldietakoa dela esan nahi dut. Lehenago

Ekullu:

Ikutilu.
Labetxeko
ekullun
zezen
adarrak
okerrak.



ere beste Leitza asko izanen ziren, eta azken berrehun urtean Leitza bat baino gehiago ere bai. Beraz, hortik Aio, Leitze! izena. Egia esatera, argitaratu aurreko egunetan izenburua aldatzeko tentaldia izan nuen: Zer berri, Leitze! edo Zer ibilki, Leitze! titulatzeko asmoa pasa zitzaidan burutik. Beharbada bi horiek politagoak ziren, 'positiboagoak' itxuraz, baina paratu diodan izenak argiago azaltzen du lan honen asmoa: herri batek, norabaiteko abioa izan dezan, bere iragana ere ezagutu beharko luke; ezin eginen dugu, bada, gure etorkizuna, pilota-partida, parranda eta teknologia hutsez; askok hala nahiko lukete, ordea, eta egunen batean zera edukiko dugu: jendea Google-n barrera ibiliko dela, bere herriko denbora joana ezin berreskuratuz. Bestalde, badi-rudi Leitzako topiko batzuk gailendu egin zaizkigula (herri kirola, ingurutxo, panparronkeria, taberna, Orantzaro...), baina badira askoz Leitza gehiago. Zalpaltzen dugun lurtean sekulako ondareak daude, dirurik ematen ez duten horietakoak, ordea. Mehatze horretan berean, nahiz eta ez beharbada nik erabilitako as-

mo berarekin, Patziku Perurenak lan goangarriak egin ditu. Honako Aio, Leitze! hau Karretoren lanen osagarri bat da, ez du askoz gauza gehiago ekartzen; gutxiago ere bai, zenbait kontutan; baina ordena argiagoan azaltzen ditu hark eta beste batzuek (batez ere Joxemari Azpirotz zenak eta Plazaola aldizkariak) argitaratu dituztenak. Lan haietara jotzeko erreferentzia bat ere bada hau; aurkibide bat.

■ **Liburua 2005eko udazkenean argitaratu da, baina badakigu hori baino askozaz lehenago hasi zinela lana osatzen. Noiz eta nola sortu zitzazun hiztegia osatzeko ideia? Kontatuko al diguzu hiztegi honen historia? Lehendabiziko urratsak zein izan ziren, egindako bidea zein izan den...**

Duela hamar bat urte, Gasteizen ikasle nintzela, Joxemari Azpirotz Tolatxeneko apezaren hiztegi-lanak fotokopiatu nituen. Petroleoa aurkitu izan banu ez nintzen gehiago poztuko. Artikulu haiek 1963 eta 1982 urteen bitartean atera ziren

Euskaltzaindiako aldizkarian, baina Leitzan ez nuen inoiz horien aipamenik sentitu, eta harrigarria iduritu zitzaidan. Hango hitz gehienak ezezagunak nituen eta irentsian jateko modukoak zirela ohartu nintzen; izan ere, Azpirotzek bazuen filologo sena. Haren asmoa hau zen: Azkueren hiztegian jaso ez ziren Leitzako hitzak eta adierak biltzea; garai hartan Azkueren hiztegia baitzen osoena (orain ere, ia ehun urte dituen arren, oinarritzko lanabesa da hiztegi-gintzan). Piskanaka-piskanaka ordenagailura aldatu nituen Azpirotzen hitzak. Gero, Patziku Perurenaren liburuetan edo Plazaola aldizkarian hitz haietxek topatzen banituen, ttak, adibide berria itsasten nuen Azpirotzen azalpenaren ondoan. Handik hurrena, 1998. urtean, Areso eta Leitzako hizkerak izeneko liburua atera nuen; han fonetika, morfologia, sintaxia, azentua eta beste zenbait kontu aipatzen ziren, baina lexikorik (hiztegi-rik) ez zen agertzen. Liburu haren sarreran honela nioen: «Lexikoa ikerlan honetatik bazter uzteko erabakia hartu dut»; izan ere, «lexikoaren alde-aldeko azterketak liburuki honen erditsuko



Elurri: Elorri. Analdeko Mikel Lizarraga Agorritzko trikuarriaren aurrean (Beruete); atzeko elurri horrek trikuarrian sartuta ditu zainak (1985-12-23).



Erbil: Lur soskorrak txikitzeko tresna. Joxe Garro lur-soskorrak erbillez jotzen.

zabalera har lezake». Oso motz neurtu nuen... Pare bat urte geroago, 2000. urtean edo, serioago hasi nintzen pentsatzen herrian bertan hiztegi bat atera zitekeela; horretarako, Leitzako errege erreginak liburua hasi eta buka hustu nuen (bertako lexikoa bereizi, alegia). Liburu hau ez du Orotariko Euskal Hiztegiaren jaso, eta izugarritzko hutsunea da hori guretzat; izan ere, nire irudikoz, Perurenaren lan hau onenetakoa da ahozko euskal literaturaren alorrean. Ibon Sarasolak berak, Orotarikoaren arduradunak, «bikaina» dela aitortu du orain dela gutxi. Beraz, Leitzako errege erreginak liburua Orotariko hiztegi horretatik kanpo geditzearekin, Leitzako euskara bera ere ia guztiz kanpo geratzen da euskararen corpusa biltzen duen sistematik. Duela bost bat urte bilera bat edo beste egin genuen Euskara Zerbitzuan, zer hiztegi klase komentzen erabakitzeke: Leitzakoa bakarra, Leitzakoa eta Goizuetakoa batera, edo eskualde osokoa. Leitzakoa egitea hautesi genuen, garbiena izanen zelakoan. Asmatu genuela uste dut. Orduz geroztik hitzak eta azalpenak gehitzen eta orrazten jarraitu dut, idatzizko testu gehienak hustu bitartean. Etxez etxe ere ibili naiz, zailak argitzen eta hamaika hitz berriren zehaztapenak ikasten. Leitzarren parte hartzea eskatzeko, 2003ko udan saio bat egin genuen Karrape irratan, han bertan hiztegiaren ale bat izanen zela adieraziz. Baina gaur arte ez zait inor bere borondatez etorri; hori ere akuilu polita izan da hiztegiari amorrrazio haundiagoarekin heltzeko. Egin ditudan azken lanak hauek izan dira: hiztegi osoa argitaratzeko presatu eta argazki zaharrak bildu eta berriak atera.

■ **Bistakoa da sekulako lana egin duzula, eta ordu asko eman dituzula lan hau osatzen. Neke handia eragin al dizu? Izan al duzu inoiz lana bertan behera uzteko tentaldi-rik?**

Hiztegi egitea lan haundia da. Azkue



Pozobe: Pozoi. Pozobek hildako azeria; Tolatxeneko Mikel Azpiroz azeriari eusten; atzean, Gorritzko David eta Gotzone Sestoriain (1992-1-27).

zaharrak esaten omen zuen haretzek eman ziola nekerik gehien. Alabaina, alderdi beratzagoak ere baditu: ordena alfabetikoari segitzen dionez, ez duzu antolamenduaz sobera kezkatu beharrik; artikulubatek edo nobela batek, aldiz, askoz egituraketa bereziagoa behar izaten du. Uzteko tentaldirik? Inoiz ez dut lana bertan behera uzteko asmorik izan; nahikoa zalantza erabili nuen ekiteko orduan.

■ **Beste inongo eredurik-edo erabili al duzu zurea osatzeko? Zein?**

Lekuan lekuko hiztegi asko atera dira azkenaldian, baina ez dut gogobeteko eredurik aurkitu. Nafarroan bi hiztegi mota argitaratu dira urte hauetan: bat, galdutako edo ia galdutako hizkeren gainekoa (Errokariko hiztegia, Zaraitzu-koa, Izarbeibarrekkoa, Erroibarrekkoa...); beste bat, bizirik dauden hizkeren gainekoa (Baztango hiztegia, Sakana erdialdeko hiztegi dialektologikoa, Ultzamako hiztegi ttikia...). Zenbait gauzatarako azken horiek hartu ditut eredu; Sakanakoa, adibidez, oso hiztegi ona da bere sailean. Baina Aio, Leitze! hau desberdin samarra da; hiztegi honetan beharbada ez da heldu haietan adina hitz, baina sarrerak, oro har, zabalagoak dira eta exenplu gehiago era-

bili ditut. Adibide gehienak, gainera, naturalak dira, han-hemen irakurri edo aitu ditudanak alegia, ez nik neure buruz sortutakoak. Orain berriro Juan Martin Elexpuruk hiztegi bikaina argitaratu du: Bergara aldeko hiztegia. Nireak baino askoz sarrera gehiago ditu, eta milaka argazki eta irudi. Gauza asko soberan dituela uste dut, ordea.

■ **Lan hau osatzeak herria hobeki ezagutzeko parada ere emanen zizun, ezta?**

Bai, baina seguru aski azaleko ezagutza baino ez da izan. Beti izan naiz turista samarra Leitzan, hau da, iraitzean ikasten diren gauzak neregana zalea. Beste batzuek, berriz, mila eta bat aldarrikapen ahoskatu arren, ez dute jakinmin zipitzik ere izaten. Bakoitzak bere zaletasunak izaten ditu. Nolanahi ere, ohartu naiz herri baten historiara eta izakerara hurbiltzeko oso bide egokia dela bertako hizkera estudiatzea. Ez dut deus berririk asmatu, ordea; hizkuntzaren eta gizartearen arteko erlazio horixe baita, egia esan, filologiaren oinarria: biak ala biak gertakari sozialak dira, eta elkarren osagarri ezinbestekoak. Horixe frogatzen saiatu nintzen, hain zuzen, Areso eta Leitzako hizkerak liburuko aurreneko atalean.

■ **Hiztegia osatzeko garaian, eta argitalpena prestatzean, hartzaile jakin bat izan al duzu buruan? Alegia, herriko jende helduarentzat, gazteentzat, ilustratuentzat, denontzat... Norentzat idatzi duzu?**

Uste dut denontzako moduko liburua dela; azalpenetan teknizismo larririk ez sartzen saiatu naiz. Hala ere, bereziki gazteentzat pentsatutako lana da, beraiek eman beharko baitiote segida honi guztuari: hizkuntzari eta herriko mugimenduari. Beraz, zuzenean edo zeharka (irakasleen eta gurasoen bitartez) haiek jaso beharko lukete probetxurik gehien. Hiztegiaren hartzaile ideala nor? Jakinmina duena. Jakinmin denak ez du adinik iza-



Zimitterio: Zemetterio. Elizaren klaustroa. San Miel Elizako ataria edo zimitterioa, eta Asketa abesbatzakoak bertan; harlauza horien azpian izaten ziren hilobiak (2004-4-24).

ten, betiko da gazte, eta umeak bezala harritzen da gauzarik apalenekin.

■ **Ez da galdera erraza, badakigu, baina eginen dizugu hala ere: Leitzako hiztegia, Leitzako euskara, Leitzako hizkera... zein da bertako hizkera horren tokia, zure ustez? Eta zein da Leitzako hizkera horren etorkizuna?**

Hizkera hitza honela definitzen da: «Hizkuntza bat hitz egiteko era». Hortaz, Leitzako hizkera Leitzan euskara (edo gaztelera) hitz egiteko era litzateke; era hori honako eragile hauek baldintzatzen dute, besteek beste: ingurune fisikoak, lekuko eta inguruko kultur ondareak, auzoko herriekiko harremanak, bertako gizartearen erlazio-sareak, lan eta ekonomia usadioek... Euskal Herrian barrena bezala, gurean ere kondizio horiek guztiek oso egonkor iraun dute ehundaka urtetan; ziklo jakinetan baizik ez dira aldatu, oso geldiro. Leitzako hizkera nekazalkoari arras loturik egon da, eta, haragiak hezurri bezala, hutsunerik utzi gabe heldu die bizi izan izandako geografiari eta ber-

tako gizarteari; inondik ere, hizkera hori bordari jendearen adierazpide bete betekoa izan da. Orain, berriz, berrogeita hamar bat urtetik hona, klase guzietako aldaketak izan dira, eta gauzak gero eta abiadura bizkorragoan aldatzen dira; gainera, oraingo eragile sozioekonomikoak ez dira gure iskin honetan mugatzen: gaur Madrilek Tolosak baino askoz gehiago eragiten gaitu, lehenago ez bezala. Hala, behinik behin, orain oso jende gutxik —zaharrek, batez ere— hitz egiten du garai bateko euskara hura; eskerrak!, esan beharko genuke: gu ere modernizatu gara! Baina, bestalde, galdu ere arruntean egin dugu, eta uste dut badela garaia euskara hark zituen baliabiderik emankorrenak berreskuratzeko. Izan ere, orain, oro har, Leitzan egiten den euskara askoz ere pobreagoa da: alde batetik, urteotan erdarearen eraginik haundiena jaso dugu; bestetik, bertako euskara hobetzen dutelakoan, euskara batuaren topiko guztiak (ekidin, ohiko, -ri buruz...) hartu ditugu, baita ahazkoan ere. Inork pentsa lezake Leitzako hizkera egitea ekusi, Leitze eta sasobe

esatea dela, baina hori axala baino ez da. Leitzako hizkera egitea euskara egitea da; beregaina eta oso osoa den hizkuntza bat erabiltzea. Hori azaltzen saiatu naiz liburu honetan. Batua sortu izan ez balitz, Leitzan askoz ere euskaldun gutxiago izanen genituzke orain, baina leku askotan sarrera zabalegia eman zaio. Triste da esatea, baina euskara batuarekin lan egiten duen hainbat jenderi traba egiten diete euskalkiek eta lekuan lekuko hizkerek; ez da egia euskara batua gauza batzutarako eta euskalkia bestetarako nahi dutenik; arrasa egin nahiko lukete. Nik hori ezagutu dut.

■ **Liburua, argitalpena, kalean da dagoeneko, bukatuta. Baina Leitzako hiztegia, bukatu al da? Ba al duzu osatzen eta hitzak biltzen jarraitzeko gogorik edo asmorik?**

Asmorik ez dut. Gogoak, berriz, uste-kabeen berritzen dira horretarako egokiera suertatuz gero. Pentsatzen dut orain jendea akatsak ateratzen eta hiztegian ez dauden hitzak gogoratzen hasiko dela. Gauza ona litzateke hori: jendea zirikatu duen seinale; hori baita hitz eta esamolde zaharren errauntsak harrotzeko modu bakarrenetakoa. Egiari zor, ahozketasunaren alorrean lan haundia dago egiteko. Askotan esan da euskal literaturak klasikoko gutxi dituela: Leizarraga, Axular, Mogel, Duvoisin eta palda. Baina uste dut garaia dela gure klasikoak zein diren ikusten hasteko. Nire klasikoak, bederen, kalean edo mendian dabilta oraindik, eta haiekin mintzatzeko eta lan egiten segitzeko asmoa dut. Euskara batua sortu zen ~~ez geroztik, gure zaharren aldetik isildu~~ razteko eta ez aditzeko joera izan dugula iduritzen zait.

Esan bezala, gustora hartuko nuke hiztegiak akatsen berri, eta ezagutzen ez ditudan hitzena ere bai. Inork zerrendaren bat eginen balu, arren telefono hontara deitzea eskertuko nioke: 665752720; edo

CEDERNA-GARALUR Elkartearen Garapen Agentziaren aurkezpena Leitzaran-Larraun-Ultzama eskualderako

Pasa den irailaren 26an, arratsaldeko 6etan, Leitzaran-Larraun-Ultzama eskualderako CEDERNA-GARALUR Elkartearen Garapen Agentziaren aurkezpena egin zen. Bileran Goizueta, Leitzza, Areso, Araitz, Betelu, Lekunberri, Basaburua eta Ultzamako Udaletako alkateak eta ordezkariak egon ziren, baita Astiz eta Aldazko kontzejue-takoak ere, Larraungo Udalaren ordezkari gisa. Aipatu bileran, Elena Irigoien Arbizu aurkeztu zuten, aurrerantzean CEDERNA-GARALUR Elkarteko Garapen Eragileen Sareko partaidea.

Lekunberriko Udala anfitrioi izan zuen aurkezpenean, Eva Jimenok, Elkartearen zuzendari-gere-
renteak, CEDERNA-GARALUR Elkarteko egiten duen lanaren ikuspegi orokorra eman zuen. Lan estrategiaren bost helburuak, eta horiek zein arlotan kokatzen diren aurkeztu zuten:



- Kalitateko enplegua sortu (Enpresen eta Sustatzaileen arloa, eta Lan Orientazio eta Kudeaketa arloa).

- Nafarroako Mendialdearen premia berriak beteko dituzten soluzio berritzaileak bilatu (Landa Berrikuntza arloa)

- Teknologia Berriak lurraldera hurbildu (Teknologia Berrien arloa)

- Kalitateko turismo xedea garatu (Landa turismoaren arloa)

- Lurralde osoan komunikazioa hobetu (Komunikazio arloa).

CEDERNA-GARALUR Elkartearen lehendakari Javier Espartzarekin batera, Elkartearen 2005erako lan egitasmoa eta aurrera begirako estrategia ere aurkeztu zituen. Elena Irigoienek Arantxa Arregi (Bertizarana, Malerreka eta Bortziriak eskualdeetarako CEDERNA-GARALUR Elkarteko garapen eragilea) eta Axun Zelaia (CEDERNA-GARALUR Elkarteko Lan Orientazio eta Kudeaketa zerbitzuko teknikaria) izan zituen lagun eskualdearen aurkezpena egiteko. Azken bi horiek, hurrenez hurren, Garapen Agentziek eta Elkartearen lan orientazio eta kudeaketa zerbitzuak egiten duten lanaren berri eman zuten.

Giro lasaian, orain arte garatutako lanaren eta gaur egun abian dauden proiektuen eta programen berri eman zuten: "Nafarroako Mendialdea" Leader+, Esne bidea, Local Eneternet, Europe Direct, Empleate, Turismo Dinamizatzeko Plana, FH proiektua eta PYRED II. Udal ordezkariak oso interesaturik egon ziren azaldutakoarekin. Halaber, Elena Irigoienek lana ere oso interesgarria izanen da.



Elena Irigoien Arbizu, aurrerantzean CEDERNA-GARALUR Elkarteko Garapen Eragileen Sareko

ORDUTEGIA ETA ARRETA

Agentzia apirilaz geroztik ari da lanean eskualdean. Irailetik aurrera, berriz, jarduera guztia abian jarrita, eta egutegia antolatuta, publikoari eta erakundeei arreta egingen die egun eta ordu hauetan:

LARRAUN: ASTELEHENA ETA ASTEARTEA.

Plazaolaren geltokia, 31870 Lekunberri. Tel: 948 537 034. Faxe: 948 537033

ULTZAMA: ASTEAZKENA.

Ultzamako Udaletxea, San Pedro kalea 11, Larraintzar. Tel: 948 306 699

LEITZARAN: OSTEGUNA ETA OSTIRALA.

Leitzako Udaletxea. Elbarren kalea 1, Leitza. Tel: 948 61 06 76

Kontsultei arreta egiteko, aldeztu aurretik ordua eskatu beharko da telefono zenbaki honetara deituta: 617 609328.

Informazio gehiago nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: Elena Irigoien (617 609328), edo Marian Serrano (948 207063).

Zerk kezkatzen zaitu hainbeste?

Kontaidazu beldurrik gabe, beti bezala, ni zu entzuteko eta ahal dudan neurrian, zu laguntzeko nago eta.

-Jar ezazu hainbeste erlaxatzen nauen musika hori mesedez.

Musika jartzen du

-Eskerrik asko.

-Gogoratzen aipatu nizun mendi irteera hori? Orduz geroztik nago horrela, gorputzean ezinegon sakona sumatzen dut.

Hasieran ez nuen joan behar, lagun guztiek bikotea eraman behar zuten, eta nik ez dudanez, denen artean estorbu egin behar nuen, egunaz baino gehiago gauaz goatzera joan baitziren denak. Baina, joan egin nintzen

eta ez naiz damutzen. Gauza guztiek bezala,

bere alde onak eta txarrak izan zituen.

Txarrak, pentsatu nuen bezala estorbu egiten nuelako eta erabat soberan sentitu nintzelakoako; eta onak, ahhh(hasperena)!!! Han geundela, beste talde batekin elkartu ginen gure azken

gaua ospatzeko festa bat egiteko asmatan. Ideia hark ez ninduen batere liluratu, baina gehiengoaren kontra, denen kontra ez esateagatik, ni ez nintzen ezer. Iritsi zen gaua, izugarritzko festa giroan sartu zen jendea, baina ni ez nengoen batere eroso, horregatik, nire tragoa eskuetan hartuta basoan barneratu nintzen buelta bat emateko. Zuzenean, erreka zegoen lekurantz abiatu nintzen, galdu ere ez nuen egin nahi eta. Hantxe geratu nintzen zutik uraren emariari begira. Hain zen garbi, puru, garden... dena hain naturala zen! Ilargiari begiratu nion hurrena. Ilargi betea zegoen, borobil-borobila, iluntasuna argitzen zuena. Baina gehien txunditu ninduen uretan zuen isla zen, gorputz biluzi bat zirudien. Askok erakartzen ninduen irudi hark eta inor begira ez zegoela ziurtatu ondoren, poliki-poliki biluztu eta ur hotzetan sartu nintzen.

-Hau normala ez dela pentsatuko duzu, erotuta nagoela... zerbaitengatik etortzen naiz zure kontsultara! (Irribarre. Isiltasuna.)

Uretatik irten ondoren, lurrean etzan nintzen ilargiari begirik kendu gabe, atzean norbait sumatu nuen arte. Batere

pentsatu gabe zutik jarri nintzen, nengoen bezala, larru bizian. Egia zen, norbait hori, begira geratu zitzaidan, eta pixkanaka nigana etorri zen, edonor txakur izutu batengana joaten den bezala, poliki eta maitekiro. Bi metrora edo nuen mutila, baina ez nion aurpegia ikusten, bere kopeta-ile luzearekin estaltzen baitzuen aurpegia. Ni ere begira geratu nintzaion.

Berak poliki-poliki eskua nire gorputzean igurtzi zuen, momentu horretan hotzikara bizia sumatu nuen. Nik masaila laztandu eta pixkanaka nire eskuak bizkarralderantz eraman eta behearantz botata nikia kendu nion. Ondoren musuka hasi ginen. Biok geure gorputza bestearen eskutan utzi genuen. Praxkak kendu nizkionean lurrean etzan nintzen. Eskutik tira egin nion. Sakon begiratzen genion elkarri, betidanik ezagutuko bagina bezala. Sakon ukitzen eta laztantzen genion bata bestearen gorputzari. Azkenik hankak gehiago zabaldu eta mutilari nire barruan sartzen utzi nion. Biok hasperen baten hasi ginen. Egia esateko, mina sumatzen nuen, mutila gainetik kentzeko gogoia ere izan nuen. Baina min horrek plazeraren zapo

**Institutuan Ipuin erotikoen
lehiaketa egin da,
eta honako hau dugu
irabazleetako bat.**

re gozoa zuen eta gustatu egiten zitzaidan.

Hark niri bularra ukitu, nik hari ipurdia. Hark niri lepoan musu eman, nik berari belarrian, eta berriro hark nire hanketako atea jo zuen eta nik berari sartzen utzi nion. Behin eta berriz aritu ginen horrela, nekatu ginen arte eta testigu bakarra ilargia genuela. Azkenean, begiak itxi nituen, mutilari eskua hartuz.

Hurrengo goizean, eguzkiaren berotasunak esnatu ninduen. Oraindik biluzik nengoen, baina bakarrik. Han ni besterik ez nengoen! Eskuekin nire prakari eusten niola, eta mutila? Orduan erreka begiratzea otu zitzaidan. Han ikusi nuen eguzkiaren isla. Aurpegi bat ematen zuen, barre egiten zuen aurpegi bat. Mutilaren arrastorik ez zegoelako egiten zidan barre eguzkiak. Urduri jartzen nau egoera hartaz gogoratzeak, benetean maitatu nuen mutil hura. Izenik ez nion galdetu. Ez nuen bere ahotsaren doinua entzun. Ez nion aurpegia ikusi. Ez zidan gorputzean plazeraren arrastorik besterik utzi. Benetan maitatu nuen eta horrek kezkatu egiten nau.

-Zerk kezkatzen zaitu ba????, ez dut ulertu!

-Bada, hurrengo goizean, mutilaren arrastorik ez izatea, mutila nolakoa den ez jakitea, berriro ikusiko ez dudala pentsatzeak HORREXEK KEZKATZEN NAU!!!(oihu).

Gehien kezkatzen nauena ea benetan pasa zen jakitea da, zeren politegia izan zen dena egia izan zitekeela pentsatzeko.

Ze lanak jartzettuzuen!



Minbizia

Leitza, mendi artean dagoen
herri zoragarria, gaixorik al dago?

Hainbeste fabrika, tailer, obra, zakar... Honek ez al du gure osasunean eraginik? Minbizia, gaitza, hain jende gaztearen artean, nondik dator? Ez al du gure osasunak gure arreta gehiago merezi?

Leitzan minbizi kasuak normala baino zertxobait gehiago direla askotan entzuten dugu, eta denongan kezka handia sortzen du. Kezka, areagotzen duena zera da, ez dakigu egia den eta hala bada, zein den arrazoa.

Hori dela eta, arazo honen inguruan, informazio gehiago bildu nahi izan dugu eta horretarako, hainbat lagunekin elkartu gara: geologo, mediku, biologo, ekologista, alderdi politiko, basozain, sindikalista,...

Leitzako kutsadura iturri nagusitzat Sarrio hartu izan da. Orain dela urte batzuk gainera sufre gehiegi jariatzen zuela eta, arazoak izan zituzten. Arazoari konponbidea emateko Nafarroako gobernuak neurri zorrotzak jartzen omen dizkio eta hori dela eta ez omen du hainbeste kutsatzen. Baina, hala ere, noizbehinka, ikusten da ke ilunen bat zerura igortzen eta hori, seguruenik, ez da ur lurrin hutsa izanena. Honen aurrean, zenbait galdera daitezke; nahikoak dira Nafar Gobernutik ipintzen dituen baldintza horiek? Ongi kontrolatzen da beren aplikazioa? Orain arte isuritakoak, zenbat-erainoko kalteak sortu ditu? Eta zenbat denbora behar du desagertzeko?

Azken aldian, tailer txiki asko ari dira ekartzen Leitzako industria gunera. Hor ere galdetu dugu ea kutsadura sortzen duten. Honako hau esan digute: ez dituzte Leitzara kutsadura handia sortzen duten tailerrak ekartzen baina ezer ez kutsatzea ezinezkoa da.

Urari dagokionez, araztegi bat badaukagu eta honek errekei mesede handia egin die, baina, honek ez du esa n nahi erreketara joaten den ur guztia garbia denik. Hondakin likidoak baino gehiago solidoak botatzen dira. Leitzan, ohitura handia dago erreka zuloe-

tara, etxeko elektragailu-ak botatzeko. Hondakin solido hauez gain, oso garrantzitsua da Leitzako belatxoetan, ongaria botatzen dela, hauek gero erreketara joaten dira eta nahiko kutsakorrak dira.

KUTSATZEN ARI GARA LEITZAN?

Mendiko kutsadurari dagokionez, akustikoa da gehien nabarmentzen dena. 4 gurpileko moto eta autoak ez dagozkien bideetatik ibiltzen dira. Mendiak garbitzeko saiakera egiten ari da Leitzako udala. Zuhaitzak landatuz eta zahartuak daudenak kenduz. Baina, Leitzan ere beste leku guztietan bezala, eremu berdeak gutxitzen ari dira, eta guk gure mendiak zaindu beharra dugu.

Leitzako atmosferari buruz, ezer gutxi jakin dugu; inork ez digu ezer garbirik esaten. Metal kut-sakor gehiegi omen dago, baina, hala ere, ez dute hau aztertzen lanik egin. Hala ere, kutsadura atmosferikoaren inguruan gehien aipatu digutena gure autoek sortzen dutena da. Hau hala bada, beste herrie-

tan ematen dena baino askoz gehiago da? Gure herriko orografiak, zulo batean egoteak, noraino areagotu dezake kutsadura? Edo zaildu honen desagertzena?


Gehiegizko minbizi kasuak ikusirik, medikuarengana joatea erabaki genuen. Medikuak azaldu digunez, berari ere nahiko arraroa egin zitzaion Leitzako minbizi tasa. Berak esan zigunez, Leitzako jendeak oso bizi osasungarria dugu: mendira joateko ohitura, baratzak... Eta horren aldetik, behintzat, ez zegoela arazorik.

Kutsadurari dagokionez ere, ez omen zaio iruditu Leitzan hainbestekorik denik, eta beraz, ez lukeela minbizien sortza-iletzat hartuko. Medikuak bestalde, ordura arte entzun ez genuen hipotesi posible bat eman zigan, odolkidetasuna (konsanginidadea). Bera Leitzara iritsi zenean, izugarri harritu omen zen Leitzan, ia denok abizen berdinak ditugula ikusita. Hala ere, aipatutako hipotesi hau alderdi politikoek (ia gehienek behintzat, UPNko kideekin elkar-rtzea ezinezkoa egin baitzaigu) behin eta berriro ukatu digute arrazoi hau, minbizien arazo hau azken urteetako del a esan baitigute, eta odolkidetasuna berriz, orain dela urte asko handiagoa zela.


Alderdi politikoekin ere bildu gara, batez ere udalak ingurumenari dagokionez harturiko erabaki-ak ezagutzeko asmoz. Adierazi digutenez, orain arte ez da ia neurririk hartu. Baina, hala eta guztiz ere, denek (elkartu garenek, behintzat) erakutsi dute hau moldatzeko gogoia eta hau ez da gutxi. Espero dezagun ideia hutsean ez geratzea.

HAU GUZTIA GUTXI BALITZ HARROBIAREN ARAZOA.

Guri esan digutenez, Leitzan ez dago kutsadura arazo nabarmenik, baina, minbizi kasuak hor daude, eta hauek zerbaitek sortuko ditu. Ikerketa serio bat behar da, bai behar diren neurriak hartzeko, bai beldurrak eragozteko.



Ipuin bat bost minututan izkribatzeko



Ipuin bat bost minututan izkribatzeko beharrezkoa zaizu gustura sentiara-ziko dizun leku edota bakardadean babesa eskaintzen dizun txoko maitatu horretara jotzea, non zure irudimenak irteera bilatuko duen eta ume jaio berri batek bularra bilatzen duen bezala, ideia edota amets hauek zure ondoan eduki behar duzun papererantz joko duten eta bertan pausatuko diren. Batzuetan, lehen-dabiziko ideiei ez diezu zentzu handiegirik harrapatuko, baina hauek dira garrantzitsuenak, zeren beste ideia asko zeuregana etortzeko gonbita izan daitezke. Gainera, komeniko litzaizuke ipuin bat idazteko beharrezkoak zaizkizun tresna guztiak eskura edukitzea, hala nola, paper zuria, arkatza..., zeren tresna horien bila hara eta hona ibiltzeak ez dizu bate re lagunduko, jakizu denbora ez dela zuri begira geratuko eta bizitzak gauza guztiek bezala, aurrera jarraituko du.

Jadanik badaukazu zure txokoa, orain buruan kateatuta dituzun kezka eta ardura guztiak kanporatu behar dituzu, horretarako altxa zaitez eta eman ezazu bueltaxka bat etxean zehar.

Zoaz komunera eta freska ezazu aurpegia ur hotz pixka batez, oso mesedegarria izango zaizu. Beste zereginik baduzu aprobetxa ezazu komunean zau-

dela, zeren oraindik minutu erdia pasa bada ere, ezin duzu denbora alferrik galdu. Ondoren, joan zaitez sukaldera, har ezazu zerbait hozkailutik eta jada ideiak argitu dituzunez, jo ezazu berriro zure txokora eta murgildu zaitez ametsen mundu magiko horretan.

Jar ezazu papera zure aurrean, hartu arkatza eta jar ezazu esaldi hau paperean:

Ipuin bat bost minutuan izkribatzeko beharrezkoa zaizu...

Ez dira bi minutu pasa oraindik eta jadanik eman diozu hasiera. Orain, abia zaitez zure ipuinari jarraitzeko indarra ekarriko dioten beste ideien bila. Harra-patzen dituzunean, mugi zaitez eta idatzi itzazu azkar, ihes egin baino lehen: (Herritarrek bakardadearen tristuran murgilduta bizi nintzela zioten).

Bi minutu eta erdi geratzen zaizkizu, baina, ez zaitez kezkatu zeren lehenengo esaldi honek beste asko erakarri ditu eta zure bitartez, aurrekoaren ondoan elkartzen hasi dira: askok beldur zidatenen, ez zuten ulertzen nola bizi zitekeen ni bezalako agure zahar bat horrelako baso ezkutu, beldurgarri eta bakar-tietan).

Bi minutu gelditzen zaizkizu. Jar ezazu zure gogo guztia ipuinean eta ez ezazu utzi beste ezerk molesta zaitzan.

Barkatu duzu: nire zorionik beroenak. Bero-bero dago oraindik, ogi egin berria bezala.

Emaiozu merezi duen tratua, maita ezazu eta erakutsi iezaiozu aurrerantzako bildea.

Denbora aurrera doan heinean beste ideia batek erakartzen du zure arreta eta idazteari ekiten diozu. (Hori dena iragan beltz baten ondorioa zela uste zuten, baina, oso oker zeuden. Egia da ez dula harro egoteko moduko iraganik, baina, azken batean, nirea da, ezin diot uko egin).

Mugi zaitez, azken minutuaren atarietan zaude. Segi bururatzen zaizkizun ideia guztiak esaldi bihurtzen, bikain ari zara!

(Jendeak ez du ulertzen nik aukeratu

Segi bururatzen zaizkizun ideia guztiak esaldi bihurtzen, bikain ari zara!

dudala nire bizitzako azken egunak horrela amaitzea, bakardadean. Baina ez dakite nire sekreturik baliotsuena, ez nago bakarrik. Hementxe bertan ditut nire bizitzari amaiera emateko bilan nitzakeen lagunik onenak).

Azken minutua aitzen hasi da, ez duzu denbora handiegirik, baina azken ahalegintxo bat eta amaituko duzu.

(Urteetan zehar, jendeari ulertezinak zaizkion hizkuntzak entzuten ikasi dut. Errekaren berriketa lasai eta iraunkorrak nolabaiteko baretasuna ematen dit eta arazo guztiak poliki-poliki itsasoan galdu arte nola eramaten dituen entzuten dut. Baita basoko txori txikien kantu pozgarriak, katagorrien jauzi eta dantzak...Milaka eta milaka hizkuntza, denak batera niri deika. Nik erantzun egiten diet eta orduantxe ohartzen naiz momentu hori dela nire bizitzako hobere-na, ez dut negar egin nahi, indartsua naizela frogatu nahi dut baina, ezin dut eta negarrari ematen diot, haur txiki bat nintzenean bezala hasten naiz. Hala ere, beste egun batek argitzen du eta berri-tuta bezala handiko dut. Heriotza ate joka badut ere, ez naiz urdurituko, kon-painia onean bainago. Baina, bada zer-bait beldurtzen nauena eta ahal dudan gutxienetan pentsatzen ahalegintzen naizena, gogoratuko al nauen norbaitek denbora xahutzen zaidanean?).

**Joan zaitez
sukaldera, har ezazu
zerbait hozkailutik
eta jada ideiak argitu
dituzunez,
jo ezazu berriro zure
txokora eta murgildu
zaitez ametsen
mundu magiko**

Ikusi al dituzu inoiz Leitzan?

Marmariren azkeneko zenbakian Leitzako hegaztien argazki-galeria erakutsi genizuen: Leitzan bertan ikus daitezkeen -zorte eta pazientzia pixka batekin, egia esanda- zenbait hegaztiren argazkiak. Oraingoan, berriz, gure herrian ikus daitezkeen bestelako animalia batzuen argazkiak ekarri dizkizuegu. Miel Mari Elosegik utzitako argazkiak dira -mila esker, bide batez-, eta esan bezala, bertan agertzen diren horiek guztiak Leitzako mendi eta basoetan aurkitu daitezke. Horiek ere, gu bezalaxe, Leitzan bizi dira, bertakoak ditugu.

Argazkiak: Miel Mari Elosegi

Kattagorria



Trikua





Katajineta



Azeria




Muxarra



Orkatza




Satorra



Etxe-sagua



Saguzarra



Basurdea

Kostaldeko

agurea

Ipuin honen egilea Judith Mariezkurrena dugu, Leitzako Kultur Taldeak antolatutako literatura lehiaketako irabazlea.

Azkenean hartu dut erabakia. Kostaldera goaz egun pasa. Hainbeste urtetan nire baitan izan dudana asmoari ateak ireki dizkiot. Bai, gaurko egunetik ez da pasako. Emaztea, bi umeak eta traste guztiak kabitu ezinik goaz autoan. Nire arreba ere etortzekoa zen, baina azken momentuan atzera egin du, eskerrak! Urrutira ke beltza ikusten da. Hurbiltzen goazen heinean hodei ilun kirastua nagusitzen doa inguruan. Autoak ilaretan pilatzen ari dira. Bi autoreen arteko istripua izanen da agian, ez dakit.

Ilarak martxan jarri dira, aurre-ra goaz. Ba ez, auto bakarra da, mendiaren kontra birrinduta dago. Ez al da barruan inor egongo!

Iritsi gara. Umeak pozez zorutzen daude, baina ez diet kasurik egiten. Ezin dut. Urduri nago, oso urduri. Autoa aparkatzen saiatu naiz baina ezin izan dut. Azke-

nean emazteak aparkatu behar izan du. Aurpegi arraroa jarri dit. Ez diot ezer esan.

Gauzak hartu eta hondartzan jarri gara. Hondartza erdia behar dugu guretzat bakarrik. Umeek uretara joan nahi dute. Baina nik ez, ezin dut. Buelta bat ematera noala esan diet. Emaztearen aurpegian gauza asko irakur zitekeen, baina ez dut irakurri nahi izan. Begirada jaitsi, buelta erdia eman eta harkaitzetarantz abiatu naiz.

Arraro sentitzen naiz. Kirioen dantza ahulduaren artetik poza agertzen ari dela iruditzen zait. Egun hartatik ez naiz hona etorri. Gurasoek ez ninduten gehiago ekarri, eta nik ere

ez dut honako biderik sekula hartu. Gaur arte.

Harkaitzetan eseri naiz itsasoari begira. Itsaso barea, zeru urdina, haizearen laztan leuna aurpegian... oso egun polita da gaurkoa.

Baina begirada hondarretara zuzendu zait, eta egun hura gogoratzea ekidin ezinezko gauza egiten zait.

Ni mutiko txikia nintzen. Gurasoekin maiz joaten nintzen hondartzara, baina niri ez zitzaizkidan gustatzen hondartzako egun haiek. Gurasoak nitaz ahazten ziren eta egun osoan izaten nuen lagun bakarra itsasoa zen. Hari begira pasatzen nituen eguneko ordu guztiak, jolasteko betarik ere ez nuen hartzen. Itsasoak bere egiten ninduen.

Egun hartan aita eta amaren eskutik iritsi nintzen, lehenengo eta azken aldiz, hondartzara honetara. Beti bezala, hondartza pareko taberna horietako batera gindoazela uste nuen. Baina ez. Hondarretan haur batzuk ikusi nituen. Borobilean eserita zeuden, eta haien artean hitz egiten ari zen agure bat zegoen. Harantz zuzendu ziren nire gurasoak, eta ni, haien eskuetatik zintzilik.

Borobilean lekua egin zidaten gurasoek, eta eserara-



zi, bertan gelditzeko esanez. Nik ez nuen han gelditu nahi. Baina gurasoek alde egin zuten ni konturatzerako. Aurrepegi ilunarekin, baina txintik ere esan gabe, han gelditu nintzen.

“Kaixo mutiko!” agurtu ninduen agureak. Istorioak kontatzen ari zela esan zidan, eta azken hura adi-adi entzuteko. Nik irribarre lotsati batekin erantzun nion, eta istorioa kontatzeari ekin zion.

“Orain dela urte asko eta asko, baina asko eta asko, jendea argirik gabeko etxe zahar-zaharretan bizi zen garaian, bazen familia pobre bat. Familia horretan hamabi anai-arreba ziren. Baina ume haiek ez ziren zuek bezala bizi, ez horixe! Orduan oso pobreak ziren, eta txiki-txikitatik lan asko egiten zuten. Ez ziren zuek bezala eskolara joaten, ez, etxeko lanetan lagundu behar izaten zuten, edo aberatsen etxeetan lan egin. Horrela, han irabazitako diruarekin behar-beharrezkoa zena erosteko aukera izaten zuten. Eta ez pentsa diru asko ematen zietenik...”

Giro hartan gustura sentitzen hasia nintzen. Ez dakit. Azaltzen ari zen egoera hura, ez nuke esango ezaguna egiten zitzaidanik, baina ez nuen arrotz sentitzen.

“Bai, urte gogorak ziren haiek. Baina ongi pasatzeko aukera ere izaten zuten, bai. Elkar zirikatzen ibiltzen ziren; gaur honi, bihar hari... baina beti modu alaian, ez orain bezala borroka eta garrasi artean...”

Agurea istorioa kontatzen ari zen heinean, nik istorioa ezagutzen nuela iruditzen zitzaidan. Beste nonbait entzuna izango nuen eta ez nintzen oroituko. Baina nork kontatu izan zidan horrelako istoriorik? Gurasoek behintzat ez, eta ez nuen ipuinak kontatzen zituen aiton edo amonarik ezagutu. Istorioa aurrera zihoan.

“Egun batean, herriko gizon batek ziria sartu nahi izan zion familia hone-ri. Horretarako bi behi eta lau oilo gordetzea bururatu zitzaion. Familia, animaliak falta zirela konturatu zenean, lur

jota gelditu zen. Zeukaten guztia galdu zuten. Lehen pobreak baziren, orain... Ez dakizue ongi zeinen gaizki pasa zuten!”

Bat-batean, ezinegon ikaragarria sortu zitzaidan gorputzean. Ileak puntan nituen, eta bihotza uzskurtuta. Bizi-bizi sentitzen nuen familia hark sentitu behar izan zuen estuasuna, beldurra, ezerezean galduta egotearen sentsazioa. Agure kontu-kontalaria nire larritasunaz ohartu zen, baina aurrera egin zuen istorioarekin.

“Hiru egun igaro zituzten abereak aurkitu nahian, ezinean, hetsiak hartuta. Azkenean, ziria sartu zion gizona, familia hori bizitzen ari zen larritasunaz ohartu zen eta animaliak itzultzea erabaki zuen”.

“Eta frutak?” etorri zitzaidan gogora.

“Barkamena eskatu eta fruta ugari eman zion damututa zegoenaren seinale” esan zuen agureak jarraian. Baina nola etorri zitzaidan burura ideia hori?

“Etxeko seme gazteenak, familiako denek oso gaizki pasa zutela ikusi zuen, eta bere familia defendatzeko, gizon horri ordaina ematea pentsatu zuen. Horretarako bere lagunak bildu zituen”.

Izugarrizko zirrarra nagusitu zen nigan. Nirea zen zerbait bezala bizitzen ari nintzen istorio hura. Banekien zer gertatuko zen, nire burura zetozen irudiak, jarraian, hitzez adierazten zituen agureak.

“Mutiko gaztea eta bere lagunak gauean elkartu ziren. Gizon horren etxera joan eta isil-isilik barrura sartu ziren. Gizona bakarrik bizi zen, eta bazekiten momentu horretan ohean lo egongo zela. Orduan, bakoitza bere lekura joan zen: bi neskak sukaldera, mutikoetako bat aldameneko logelara, eta beste biak ganbarara. Dena isil-isilik zegoen”.

Bihotza taupadaka nuen, eta arnasa estutzen hasia. Egoera hartan sentitu izan nezakeen sentsazio berbera sentitzen ari nintzen.

“Bazekiten zer egin behar zuten. Bat... Bi... Eta hiru! Ganbarako mutikoak alde batetik bestera korrika hasi ziren

eta logelako mutikoa paretak jotzen, bitartean, sukaldean zeuden bi neskak dena hankaz gora jartzen ari ziren zarata zaratatsua atereaz”.

Hori entzuten nuen bitartean, harrotasunezko irribarreak aurpegia zeharkatzen zidan eta begiek dir-dir egiten. Ez nuen ulertzen nola, baina istorio hura bizitua nuela iruditzen zitzaidan, sinesen hasia nintzen agureak aipatutako familiako mutiko gazte hura ni nintzela.

“Ez dakizue zer nolako izua sentitu zuen gizon hark zarata haiek entzun zituenean! Isiltasunean, lo sakonean zegoen, eta bat-batean halako iskanbila bere etxean, inor gehiago bizi ez zen etxean. Bihotza atera beharrean jarri zitzaion, eta lasterka atera zen bere gelatik makila eskuan zuela etxean zebilen jipoitzeko asmoarekin. Bost gazte- txoak, gizona jaiki zela konturatu zirenean, korrika eta presaka atera ziren handik, gizonaren makilakadak ez jasotzeko ahalegin guztiak eginez. Kanpora irten zirenean mutiko gazteak oihu egin zuten...”

“Gure etxekoei egindakoarengatik loa galdu beharko duzu!!” oihu egin nuen bihotz-bihotzetik, begietan malkoak nituela. Denak niri begira gelditu ziren. Isiltasuna nagusitu zen, eta nik agureari begiratu nion lotsati. Baina haren aurpegian irribarre gozoa somatu nuen, lasaitasuna eman zidan. Eta jarraitu egin zuen.

“Ba bai, horixe bera izan zen oihoa, horrelaxe. Horrelako gogoarekin, amonruarekin, bere familia defendatzeko haur batek duen indarrarekin. Eta korrika ihes egin zuten handik, egin zutena- rekin harro, poz-pozik joan ziren beren etxeetara lo egitera. Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Artirongo plazan”.

Zur eta lur nengoen gertatzen ari zenarekin. Orduan baino, orain gelditzen naiz harrituago. Ahaztuta neukan ipuin hura begien aurrera azaleratu zitzaidan, kontatzen ari zena eta kontatu behar zuena, dena neukan buruan irudikatua. Baina horrek zer esan nahi

zuen? Nire burua ezagutzen ez nuen leku eta egoera batean ikusten nuen, baina ez zitzaidan arrotz egiten. Egia esan, ez dut ongi gogoratzen momentu horretan zer pentsatu ote nuen, baina mundu honetatik kanpo gelditu nintzela seguru nago. Errealitatera itzuli nintze-nean, han zegoen agurea, niri so. Aurrepegi izugarritzko samurtasuna antze-man nion. Baina nor zen agure kontu-kontalari hura? Zergatik begiratzen zidan maite den gertuko bati begiratzen zaion moduan?

Pixkanaka, haur guztiak joaten hasi ziren. Nik ez nuen handik mugitu nahi, baina gurasoak berehala agertu ziren nire bila. Eta negarrari eman nion. Ez nuen joan nahi. Agurearekin gelditu nahi nuen, bere ondora bultzatzen ninduen gogo indartsua nabaritzen nuen nire baitan. Baina eraman egin ninduten. Aitaren besoetan nindoan ni, atzera begira, agurearen begietatik nire begiak ezin kenduz. Horrela egon nintzen etxe tartera sartu arte.

Ez dakit zenbat urte nituen. Txikia nintzen, oso txikia. Baina egun hartako oroitzapena ez zait sekula urratu. Baina umea nintzen, eta agian amets egin nuen, eta amets hori sinestu eta nire errealtatearen parte egin nuen. Ez dakit. Sentsazio arraroa dut. Egundura hura erreala baino irreal dela pentsatzeko bide gehiago daude. Nola izan ninteke ni orain dela ez dakit zenbat mendetako istoriotxo bateko protagonista? Ume kontuak. Ez dakit zergatik ez naizen hona lehenago etortzera ausartu. Zeren beldur nintzen? On egin dit etortzeak. Ideiak argitu ditut behintzat. Hainbeste urtetan buruan bueltaka ibili dudana pentsamendua irudimen hutsa izan da. Bai, amestu egin izan nuen. Agian egundura hartan etxetik atera ere ez ginen egin. Beste egundura batean etorri izan ginen hona eta hondartza honekin lotu izan nuen ametsa. Bai, horixe izango zen gertatu zena, eta gero, amets hori oroitzapen bizia bezala gelditu izan zitzaidan. Buruan betirako txertatuta gelditzen diren fantasia...

“Barkatu, eser naiteke?”

Gora begiratu dut, eta eguzki izpiek eragindako itsutasuna baretzearekin batera, agurearen aurrepegi gozoarekin egin dut topo.

JUDITH MARIEZKURRENA



Ezetz asmatu

Eta ? Asmatu al zenuen Marmari aldizkariko aurreko alean agertzen zirenak nor ziren? Ez zen ,bada, oso zaila ; Argazki bat edo beste aspaldikoa zen eta horrekin lanak izango zenitzuzten zuetako batzuek, baina gainerakoan oso errazak ziren. Horregatik, oraingoan zailxeagoa jartzea erabaki dugu. Neuronei noizbehinka astindu bat ematea ona izaten da osasunarentzat. Hementxe dituzue beste argazki batzuk. Zuen herriko jendea ezagutzen duzuela frogatzeko. Ea asmatzen duzuen. Animo!



Pertsonaia ezkutua



Ez da gaiztakeria hutsa ariketa hau, ez pentsa. Ezin asmatuz pixka bat sufritzen dugula? Baliteke, noski, baina horren aldean, begia eta adimena zorrozten ere lagutzen du. Eta, are garrantzitsuagoa, zure ingurukoekin harremana lantzeko ere balio du: ez baduzu asmatzen, ondokoari galdetu, hitz egiteko aitzakia eman... Ziur gaude batek baino gehiagok aitzakia hau erabili duela interesatzen zaion pertsonarekin hizketan hasteko: "barkatu, argazkikoa zein del ba al daki-zu?".

Beraz, protestarik ez egin, eta hasi pertsonaia ezkutua



DENBORAPASA

Asmatu Euskal Herriko zein herri estaltzen diren taula hauetan. Lehengo zutabeen asmatutako letra kopurua adierazten da. Bigarren zutabeen dagokien lekuan dauden asmatutako letren kopurua azaltzen da.

E	R	O	S	O		0	0
H	A	R	T	U		3	0
A	I	T	O	R		2	1
U	R	H	O	A		2	0
N	A	T	U	R		4	0

H	A	T	U	E		0	0
A	B	I	L	A		3	0
O	H	A	T	U		1	0
B	A	T	U	Z		2	0

TXISTEAK

Emakume bat joan da medikuarengana. Arazo txiki bat ba omen zuen. Ba omen zeukan titi bat ondo eta bestea ikaragarri eroria, luze-luzea.

— Begira, doktore jauna, hau pasatzen zait.

Erakusten dizkio bi titiak, eta...

— Bueno, horrek badauka... konponbidea badauka. Egin behar duzu, luze-luze daukazun titi horretan, titi-puntan gazta zaharrarekin igurtzi, eta ikusiko duzu nola gizona ez zaizun etortzen, ume txikia izango balitz bezala, titia txupatzera.

Egin du, eta hortik bi hilabetera gero eta luzeagoa.

— Bueno, zer pasatzen da? Ez al zenuen gazta zaharrarekin igurtzi?

— Bai, gazta zaharrarekin igurtzi nuen, eta orain, ordea, periodikoa eta ardo botilarekin etortzen zait.

EROSKOPOA



Aries: Osasun ezin hobea. Aprobetxatu bidaiatzeko, eta ahaztu izandako momentu txarrak.




Taurus: Familia politikoak dirua eskatzen badizu, ez eman ez dizu eta bueltatuko eta.



Gemini: Esaiozu bikoteari pentsatzen duzuna, noizean behin dutzatzea komenigarria dela.



Cancer: Etxetik ateratzen zarenean ongi begiratu nondik zoazen hanka bihurtuko duzu bestela.



Leo: Saskibaloian jolasten hasi zaitez hortxe daukazazu eta NBA-koak zu fitxatzeko prest.



Virgo: Diru mordoa irabaziko duzu, baina hurrengo egunean lapurtu egingo dizute.



Libra: Saihestu arriskua. Jentilak libre dabilta.



Scorpius: Lehertu beharrean zaude, hainbeste gauza dituzu buruan. Bota irrintzi bat.



Sagittarius: Leku guztietan lokartzen zara, utzi parrandak alde batera eta egizu lo.



Capricornius: Mongi gehiegi jan dituzu, egun batzuetan barau egin beharko duzu.



Aquarius: Kantzatzez utzi beharko duzu, euria ari du.



Piscis: Lan gehiegi egiten duzu, bizkarrezurra hautsiko zaizu.

zer diozu?

eta zuk,

Joseba Urkiola



Nola esnatzen zara goizetan?

Normalen mobileko alarma jartzet ta 5 edo hamar minutu irratie jarrita eotten naiz ongi esnatu bittarte.

Eta zein da ohera sartu baino lehen egin ohi duzun azkeneko gauza?

Urtaro sasoi hontan suei eurtxo bat bota-tzeion ohera sartu aurretik.

Ba al duzu inori idazteko ohiturarik?

Putzuz beste alde bizi dien launei idazteiotea tarteka baño internet bidezko korreoa erabiliz, korreo ordinarioa eztot aspaldi erabilli.

Trebea al zara sms-ak bidaltzen?

Ba, ez trebe ta ez trakets.

Saiatu al zara inoiz bertso bat osatzen?

Bai bertsozalea naiz ta tarteka aitzen ga lau-narten, parrandatan beti ta desastre gehi-entan.

Marmarin artikulu bat idatzi beharko bazenu, zer gai aukeratuko zenuke?

Plazetako musika taldeak.

Leitza ongi ezagutzen duzula uste al duzu?

Ez. Laurdena re eztotela izautzen iduitzen zait.

Leitzako kaleak non hasten diren eta non bukatzen diren ba al dakizu?

Ezta laurden hortan sartzen den informa-zioa.

Zerk jartzen zaitu sutan?

Puntualidade faltak.

Zerk lasaitzen zaitu?

Momentu hontan sutondoan liburu bat ira-kurri edo musika aitzek.

Egin al duzu inoiz zure bizitzaren errepasoa? Edo gazteegia zara horrelako kontuetan has-teko?

Bai errepasoa baño gehio garai puntualak go-goratu edo launekin komentatzea tokatzen da. 30 urtetan zer errepasatue izaten dela ustet.

Azkeneko galdera zuk hautatu beharko baze-nu, zer galdetuko zenioke zuere buruari?

Oain musika taldea utzita etsie hartuko al dok datorren udan , herri askotako plazatan jo gabe?

Aitor Zabaleta

Nola esnatzen zara goizetan?

Gogotsu, aurreko egunean xahututako pilak berriz erabiltzeko prest.

Eta zein da ohera sartu baino lehen egin ohi duzun azkeneko gauza?

Ur tragotxo bat edan.

Ba al duzu inori idazteko ohiturarik?

Ez da askotan burutzen dudan gauza, baina aldian behin bai.

Trebea al zara sms-ak bidaltzen?

Ez.

Saiatu al zara inoiz bertso bat osatzen?

Bai askotan, nahiz eta beti emaitza bera ez ondorioztatu.

Marmarin artikulu bat idatzi beharko bazenu, zer gai aukeratuko zenuke?

1936an hasi eta 1939. urtean amaiera eduki zuen gerra zantar hark, zer nolako ondorio izan zituen Leitza eta Leitzarrengan.

Leitza ongi ezagutzen duzula uste al duzu?

Ez, oraindik inguru eta txoko asko badauzkat deskubritzeko.

Leitzako kaleak non hasten diren eta non bukatzen diren ba al dakizu?

Batzuk bai, baina beste asko ez.

Zerk jartzen zaitu sutan?

Egunetik-egunera mundu osoan hedatu eta geratzen ari den INTRAGISENTZIAK..

Zerk lasaitzen zaitu?

Besarkada batek.

Egin al duzu inoiz zure bizitzaren errepasoa? Edo gazteegia zara horrelako kontuetan has-teko?

Bai, askotan, eta ondorio modura Tour.eko etapa baten antza daukala aipatuko nuke. Gorabehera ugariz josie, hain zuzen ere.

Azkeneko galdera zuk hautatu beharko baze-nu, zer galdetuko zenioke zuere buruari?

Nolakoa da egiz, egungo mundu honen bene-tako aurpegie?

